



JOXERRA AIZPURUA
INDUSTRI INGENIARIA

Disrupzioa

Urtero azaltzen dira hitz berriak, batzuetan gertaera berriekin lotuta eta besteetan aholkulari azkarrek asmatuta, gehienetan.

Aurtengo hitz berri nagusia, edo behintzat oso modan jarri dena, COVID-19 izan dela esango genuke eta jada arrunt bihurtu den hitz horrek rankingean duen lehen postua zalantzan jarri gabe, beste hitz bat azaleratu nahi dut, disrupzioa alegia.

Ez dakit Euskaltzaindiak hitz horren zuzentasunaz ezer esan ote duen, baina txosten eta testu ugaritan horrela azaltzen denez, bere horretan erabiltzea erabaki dut. Inon irakurri dut disrupzioak zerbaitekin bat-bateko etena adierazi nahi duela. Zentzu horretan, ezin uka COVID-19a oso disruptiboa izan dela, gure ohiturak, harremanak, lan egiteko erak, eta gainerakoak bat-batean aldarazi baitizkigu.

Gizartearen alor gehienetara heldu da disrupzioa, baita teknologiarara ere. Gauden hamarkadaren amaieran lehen lerroa igaro dira teknologia disruptiboak eta oso denbora motzean urteetan jaun eta jabe izandako teknologia tradizionalak baztertuta geratu dira. Sare neuronalak, adimen artifiziala, datu multzo handien analisia, ikusmen artifiziala, errealitate birtuala eta areagotua, eta abar izan dira teknologian eta enpresetan disrupzioa sortu dutenak edota sortzen ari direnak. Bisita komertzialak, salmentak,

produktu eta sistemen mantenua, bilera ez presentzialak, hizkuntzen arteko itzulpenak, produkzio-kateak eta burura etor dakigukeen edozer egiteko era aldatzen ari da.

Tradizionalki hizkuntza ingeniartzan eta kultur industria deritzon behar izaten zen teknologia, manufaktura industriar behar zenarekin alderatuz bigarren mailakoa zen eta nire iritzian agortu samar zegoen gainera, hau da, mende honen hasieran aurrerapen ikusgarriak egin baziren ere, gauden hamarkadaren erdialdean neke eta ezintasun zantzuak oso garbi azaltzen ziren.

Teknologia disruptiboen eraginez irauli egin da aipatu dudana egoera. Oso denbora motzean euskara eta beste hizkuntza batzuen arteko itzulpen automatiko onak lortu dira, elkarrizketa telefonikoetan euskara ere aldibereko itzulpenetan izateko bidea garbi ikusten da eta euskal artxibo fotografikoetan identifikazio pertsonal automatikoak egitea posible izango da laster, adibidez.

Eta aipatu ditudan adibide horiek bideratzeko teknologiak eta manufaktura industriar behar direnak berberak dira, lehen mailakoak dira. Beraz, disrupzioak elkartu egin gaitu industria mota desberdinetako eragileok, eta hemendik aurrera industria mota guztietan teknologia berberak erabili beharko ditugu aurrera egiteko. Balia dezagun aukera! ●



UXUE APAOLAZA

Tolerantzia

Garai berean haserre daiteke zenbait pertsona etorkinak Kanarietara iritsi eta hotel igerilekuduntan hartzen dituztelako, doan, eta suteak eragiten dituzten droga-trapitxero okupa piromanoak direlako. Azken aldian herriar erdi-informatuak hedabideetan ikusi duen antzeko hirugarren sutea izan da Badalonako hori, Huelvakoaren eta Moriakoaren ondoren. Uretan eta sutan, hesiren baten atzean bestela, ikusten ditugun itzalak dira, beti oihuka, gure kobazulotik.

Gurean, pozik gaude gure immigrazioarekiko tolerantzia indizearekin; toleratzen ditugu gure ekonomiaren onerako ari badira, kontratua baldin badute, pape-

rak, guk egin nahi ez ditugun lanak egiten badituzte. Hitza egokia da bai: toleratzen ditugu, horretarako eskubidea daukagun bitartean, toleratzeko, edo ez toleratzeko. Itzal baldin badira.

Badalonako sutea ginga ezin hobea izan da azken aldian panorama informatiboa bihurtu den segurtasun enpresen publerreportaje horretarako. Baliabideen jabeak erabakitzen du zer toleratu eta zer ez, baliabideez gain, berea da tolerantzia ere, eta gu, esaneko kapatazok, "oparitu" diguten tolerante izateko kuotatxoa erakusten gabilta. Kontuz, edozein egunetan, atzera begiratuko duzu eta ohartuko zara zu ere kanpoan zaudela, okupa zarela beti, ezeren jabe ez, tolerantzia eske. ●